



Hautzaro
Ikastola

bizitzarako hezkuntza

Funtzionamendu
Orokorra

2019-20 ikasturtea



1. Ikastolaren organigrama	4
2. Zuzendaritzako, arlo pedagogikoko eta zerbitzuetako langileen antolaketa	5
3. Ordutegia eta egutegia	9
3.1. Ordutegia	9
3.2. Ikasturteko ikasleen egutegia	10
3.3. Guraso bilerak	12
3.4. Ikasturte bukaerako ibilaldiak	13
4. Orientazio Departamentua	14
5. Garraio zerbitzua	16
6. Jantoki zerbitzua	21
7. Eskolaz kanpoko ekintzak	25
8. Zaintza zerbitzua	27
9. Ikasleen bertaratze falta edo huts egitea	28
10. Ikasleen eskubideen eta betebeharren arautegia	28

11. Ikasleen sakelako telefonoak ikastolan: erabilera araudia	29
12. Ikastolara sarrera ordua baino lehen etortzen diren ikasleak	30
13. Osasunaren trataera Haurtzaro Ikastolan	31
13.1. Osasun arreta berezia (gaixotasunak, alergiak...)	31
13.2. Zorrien gaia	32
13.3. Istripuak	33
14. Datuak eguneratzea	34
14.1. Datu pertsonalak	34
14.2. Familia-egoera aldaketak	34
14.3. Babesgabetasun aztarnak dauden egoerak jakinarazteko betebeharra	34
15. Hizkuntzaren trataera ikastolan	34
16. Haurtzaro Ikastolako informazioa	35
17. Ikasleek ikastolan galtzen dituzten arropa eta bestelakoak	37
18. Kexak eta iradokizunak	37
19. Funtzionamendu txostenari buruzko ohar garrantzitsuak	37

1. IKASTOLAREN ORGANIGRAMA

KOOPERATIBAKO BATZAR NAGUSIA

LAN BAZKIDEAK - BAZKIDE ONURADUNAK - BAZKIDE EZ AKTIBOAK ETA BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

JAGOLARITZA BATZORDEA
HIRU BAZKIDE

KONTSEILU ERREKTOREA

5 LAN BAZKIDE, 5 BAZKIDE ONURADUN, BAZKIDE EZ AKTIBO EDO LAGUNTZAILE BAT, ZUZENDARIA ETA ADMINISTRARIA

HEZKUNTZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA (BAZKIDE ONURADUNA)

ZUZENDARIA

ORDEZKARITZA
INSTITUZIONALA

AZPIBATZORDEAK
ETA LANTALDEAK

EH / GILB
OIARTZUNGO UDALA
UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA
OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA
HERRIKO EUSKARA BATZORDEA
HERRI GIZARTE HEZKUNTZA KONTSEILUA
AGENDA 21
HERRI PLANEAMENDUA
XANISTEBANAK
BESTE...

KONTRATAZIO ETA LAN-HARREMAN
BATZORDEA
BEKA BATZORDEA
OBRA BATZORDEA
HIZKUNTZA BATZORDEA
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK
MENDI TALDEA
TXINPART
FESTAK
WEB ORRIA - ARGAZKIAK

ADMINISTRARIA / IKASKETA

ZERBITZUEN KUDEAKETA

ZERBITZU EZ
PEDAGOGIKOEN

PEDAGOGIA ARLOA

LAN-HARREMAN ETA
EKONOMIA ARLOA

2. ZUZENDARITZAKO, ARLO PEDAGOGIKOKO eta ZERBITZUETAKO LANGILEEN ANTOLAKETA

2.1. Zuzendaritza Taldea

Zuzendaria: Aritz Gonzalez Arruabarrena	
Administraria: Agustin Vital	Ikasketa buruak: Itziar Muguruza, Koro Uria eta Ramon Gorrotxategi

2.2. Arlo pedagogikoaren antolaketa

Haur Hezkuntza – Tutoreak

HAUR HEZKUNTZA	3 urte	1.A	Roxali Otegi
		1.B	Maialen Bengoetxea
		1.C	Jaione Iragarri
	4 urte	2.A	Iosune Cousillas
		2.B	Aintzane Arrastua
		2.C	Itziar Muguruza
	5 urte	3.A	Arantza Lopez
		3.B	Izaskun Sistiaga
		3.C	Igone Urkia/Ainara Uranga

Haur Hezkuntza – Ez tutoreak

Ingelesa	Itsaso Goikoetxea
	Aritz Salamanca
	Eva Moreno

Lehen Hezkuntza – Tutoreak

LEHEN HEZKUNTZA	1. Maila	1.A	Inma Iturria
		1.B	Sorkunde Lekuona
		1.C	Olatz Lekuona
	2. Maila	2.A	Amaia Gelbentzu
		2.B	Marilo Zubizarreta
		2.C	Beñat Mendizabal
	3. Maila	3.A	Eneko Huitzi
		3.B	Xabier Salaberria
		3.C	Lide Martiarena
		3.D	Idurre Arrastua
	4. Maila	4.A	Garazi Aramendi
		4.B	Agurtzane Zubizarreta
		4.C	Asmara Ortega
	5. Maila	5.A	Joxan Arruabarrena
		5.B	Miren Arruabarrena
		5.C	Elias Arizmendi
	6. Maila	6.A	Izko Lekuona
		6.B	Lupe Mendigutxia
6.C		Garazi Urdanpilleta	

Lehen Hezkuntza – Ez tutoreak

Ingelesa	Itsaso Goikoetxea
	Aritz Salamanca
	Eva Moreno
Musika	Ainara Uranga – Xuxuna Juanes

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza – Tutoreak

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	1. Maila	1.A	Iñaki Lertxundi
		1.B	Mariaje Frutos
		1.C	Maidier Lekuona
	2. Maila	2.A	Unai Agirre
		2.B	Ander Mariezkurrena
		2.C	Madalen Usabiaga
	3. Maila	3.A	Kristina Boan
		3.B	Pilar Altuna
		3.C	Oneka Zapirain
	4. Maila	4.A	Patxi Lizarraga
		4.B	Donibane Azkarate

Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntza – Ez tutoreak

Josu Arotzena
Maite Gomez
Ramon Gorrotxategi
Leire Lekuona
Erramun Sagarzazu
Xabi Solano
Jaione Ugaldebere
Argiñe Oiarbide
Ariane Retegi
Sohalge Arbelaitz
Aritz Gonzalez

Orientazio departamentua

Haur eta Lehen Hezkuntzako aholkularia	Nekane Orkaizagirre
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako orientatzailea	Tamara Yaoska Sastre
PTak	Nekane Orkaizagirre
	Tamara Yaoska Sastre
	Pili Lizaso

Zerbitzuetako langileen antolaketa

Idazkariak	Oihana Irastorza eta Paki Zabala	
Atezaina	Xabier Landa eta Zesar Brun	
Jantokiko eremuetako Arduradunak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Izar Lekuona 2. Eskarne Darzeles 3. Itziar Etxebeste 4. Maritxu Loperena 	Begiraleak	
	HH 3 urte	Izar Lekuona, Oihana Jaimerena eta Ainhoa Intxausti
	HH 4 urte	Begoña Larruskain, Larraitz Aranburu eta Maider Olaizola
	HH 5 urte	Gurutze Aranburu, Arantzazu Urkia eta Ani Bengoetxea
	LH 1. maila	Laura Zaragozano eta Eskarne Darzeles
	LH 2. maila	Esti Ruiz eta Gurutze Ezkerro
	LH 3 maila	Arantxa Esnaola eta Lurdes Lopez
	LH4 maila	Itziar Etxebeste eta Rocio Bravo
	LH 5 maila	Rakel Villegas eta Amaia Sanzberro
	LH6 maila	Yolanda Gaztelumendi eta Irune Ruiz
	DBH	Maritxu Loperena, Izar Lekuona, Eskarne Darzeles, Gurutze Ezkerro, Lurdes Lopez eta Maider Olaizola
Garraioa	Ainara Cuesta	
Eskolaz kanpoko ekintzak	Koordinatzailea: Alaitz Bergaretxe	
Zaintza zerbitzua	Goiza (07:30 – 09:00): Eskarne Darzeles eta Izar Lekuona	
Idazkaritzako ordutegia	Irailetik ekainera: 08:00-13:15 eta 14:30-17:30 Uztaila: 08:00-14:00	

3. ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

3.1. Ordutegia

IKASLEEN ORDUTEGIA	Goizez	Arratsaldez
HAUR HEZKUNTZA	09:00 - 12:00	14:30 - 16:30
LEHEN HEZKUNTZA	08:30 - 12:00	14:30 - 16:30
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	08:00 - 14:05	–

IRAKASLEEN ORDUTEGIA 35 ordu / asteko	Aste osoan	Beste
HAUR HEZKUNTZA	08:30 - 13:00 14:30- 16:30	Astelehenak: 13:30 - 14:30 Asteazkenak: 16:30 - 18:00
LEHEN HEZKUNTZA	08:30 - 13:00 14:30 - 16:30	Asteartekak: 13:30 – 14:30 Asteazkenak: 16:30 - 18:00
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	08:00 - 14:05 15:15 - 16:15* (*ostiralak izan ezik)	Asteazkenak: 15:15 - 18:00

3.2. Ikasturteko ikasleen egutegia

IRAILA

Irailak 9: HH, LH eta DBHko ikasleen ikasturte hasiera

Irailak 16: Eskola egun osoz

AZAROA

Azaroak 1: Jai eguna

ABENDUA

Abenduak 3: Jai eguna

Abenduak 20: Neguko oporrak, eguerdian

Abenduaren 23tik urtarrilaren 6a bitarte neguko oporrak

URTARRILA

Urtarrilak 7: Bigarren hiruhilekoaren hasiera

OTSAILA

Otsailak 17: Ihoteetako astelehena, jai eguna

Otsailak 24-25: Inauterietako astelehena eta asteartea, jai eguna

MARTXOA

Martxoak 19: Jai eguna

Martxoak 20: Zubia

APIRILA

Apirilak 3: Arratsaldean udaberriko oporrak

Apirilaren 6tik 17a bitarte udaberriko oporrak

Apirilak 20: Hirugarren hiruhilekoaren hasiera

MAIATZA

Maiatzak 1: Jai eguna




EKAINA

Ekainaren 8tik 19ra: HH eta LH ikasleak goizez (egun erdiz)

Ekainak 19: Eguerdiz, udako oporrak

2019/2020

HH-LH eta DBHko ikasleen egutegia

-  Hasierak HH-LH-DBH
-  Zubiak
-  Opor aurreko azken eguna
-  Jai egunak
-  Egun erdiz HH, LH eta DBH
-  Inauterietako jai eguna

Iraila						
A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Urria						
A	A	A	O	O	L	I
						1
	2	3	4	5	6	
8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Azaroa						
A	A	A	O	O	L	I
						1
					2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Abendua						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
		3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Urtarrila						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Otsaila						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
						6
						7
						8
						9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

Martxo						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
						6
						7
						8
						9
						10
						11
						12
						13
						14
						15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Apirila						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Maiatza						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
						6
						7
						8
						9
						10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Ekaina						
A	A	A	O	O	L	I
						1
						2
						3
						4
						5
						6
						7
						8
						9
						10
						11
						12
						13
						14
						15
						16
						17
						18
						19
						20
						21
						22
						23
						24
						25
						26
						27
						28
						29
						30

3.3. Guraso bilerak

IKASTURTE HASIERAKO GELAKO GURASO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 3 URTE: urriak 1, asteartea
- 4 URTE: urriak 2, asteazkena
- 5 URTE: urriak 2, asteazkena

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: urriak 3, osteguna
- 2. MAILA: irailak 25, asteazkena
- 3. MAILA: irailak 25, asteazkena
- 4. MAILA: irailak 26, osteguna
- 5. MAILA: irailak 24, asteartea
- 6. MAILA: irailak 23, astelehena

DBH

- 1. MAILA: urriak 7, astelehena
- 2. MAILA: urriak 8, asteartea
- 3. MAILA: urriak 9, asteazkena
- 4. MAILA: urriak 10, osteguna

IKASTURTE BUKAERAKO GELAKO GURASO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 3 URTE: maiatzak 27, asteazkena
- 4 URTE: maiatzak 26, asteartea
- 5 URTE: maiatzak 26, asteartea

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: maiatzak 18, astelehena
- 2. MAILA: maiatzak 19, asteartea
- 3. MAILA: maiatzak 19, asteartea
- 4. MAILA: maiatzak 20, asteazkena
- 5. MAILA: maiatzak 25, astelehena
- 6. MAILA: maiatzak 21, osteguna

DBH

- 1. MAILA: ekainak 2, asteartea
- 2. MAILA: ekainak 3, asteazkena
- 3. MAILA: ekainak 1, astelehena
- 4. MAILA: ekainak 4, osteguna

3.4. Ikasturte bukaerako ibilaldiak

HH

- 5 URTE: ekainak 2-3 **ARRITXULO** (OIARTZUN)

LH

- LH 1: ekainak 9-10 **ASTIZ** (NAFARROA)
- LH 2: Zehazteke
- LH 3: 1. txanda ekainak 8-9 eta 2. txanda ekainak 9-10 **UITZI** (NAFARROA)
- LH 4: ekainak 10-11-12 **MAULE** (ZUBEROA)
- LH 5: ekainak 1-2-3 **ZUHATZA** (ARABA)
- LH 6: ekainak 3-4-5 **AROTZ-ENEA** (NAFARROA)

DBH

- DBH 1: ekainak 15-16-17 **LARZABAL** (BEHE NAFARROA)
- DBH 2: ekainak 15-16-17 **ACEDO** (NAFARROA)
- DBH 3: ekainak 17-18-19 **GORLIZ** (BIZKAIA)
- DBH 4: ekainak 15-16-17-18-19 **COMA-RUGA** (CATALUNYA)

4. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

Nekane Orkaizagirre Lehen eta Haur Hezkuntzan aholkularia eta PTak, DBHn orientatzaile eta PT lanak egingo dituen Tamara Yaoska Sastrek eta Lehen Hezkuntzan PT lana egingo duen Pili Lizasok osatuko dute departamentu hau. Helburu nagusia da: ikasleek ikaskuntza-prozesuan izan ditzaketan zailtasun eta beharrei erantzuna emateko beharrezko baliabideak kudeatzea eta esku-hartzeak diseinatzea, oinarriko kompetentziak ahalik eta gehien garatzeko. Beti ere, tutorearekin, arloko irakaslearekin, Zuzendaritza Taldearekin eta gurasoekin lan koordinatua aurrera eramanez.

4.1 Aholkulariaren eta orientatzailearen funtzioak

Haur eta Lehen Hezkuntza aholkulariaren funtzioak honako hauek izango dira:

IKASLEEKIN

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei banakako arreta ematea, inguru arruntak elkarbanatuz edota haientzako inguru bereziak sortuz.
- Ikasleak ezagutzeaz arduratzea, eta haien beharrak era egokienean erantzuteko estrategiak bilatzea.
- Eskolaz kanpoko laguntzak ezagutzea eta harremanak sortzea.

FAMILIEKIN

- Ikasleen hezkuntza prozesuan inplikatzeko, ikastolaren eta familiaren artean lan koordinatua aurrera eraman ahal izateko.
- Une erabakigarrietan, ikasleei eta familiei aholkua ematea.

DBHn orientatzailearen funtzioak honako hauek izango dira:

IKASLEEKIN

- Bizitza-proiektua eraikitze beharko dituzten gaitasunak eskuratzen laguntzea, arlo akademiko eta pertsonalean arreta pertsonalizatua eskainiz.
- Lanbide-orientazioko programa aurrera eramatea, ikasleek etorkizunerako lanbide bat hautatu behar dutenean beharrezko informazioa izan dezaten.
- Ikasketa prozesuan sor daitezkeen arazoei aurre egiten laguntzea, eta behar izanez gero laguntza bideratzea, beti ere guraso eta tutoreekin lan koordinatua aurrera eramanez.
- Erabakiak hartzeko prozesuan laguntza ematea.
- Ikasleen artean, besteekiko errespetua eta elkarren arteko laguntza sustatzea.

FAMILIEKIN

- Ikasleen orientabide pertsonalari edo bokazionalari buruz egiten dituzten banakako eskariei erantzutea, eta beharrezko informazioa eskaintzea.
- Ikasleen hezkuntza prozesuan inplikatzeko, ikastolaren eta familiaren artean lan koordinatua aurrera eraman ahal izateko.
- Une erabakigarrietan, ikasleei eta familiei aholkua ematea.

4.2 Eskaerak bideratzeko prozedura

Gurasoek eskaera egin nahi badute:

- Tutorea jakinaren gainean jarri behar dute eta, ahal den neurrian, tutoreari eskaeraren zergatia adieraziko diote.
- Tutoreak erabakiko ditu hartu beharreko neurriak (Orientazio Departamentura bideratu, ikasketaburura bideratu...).

Ikasleek eskaera egin nahi badute

- Ikasleak tutorea jakinaren gainean jarri behar du eta, ahal den neurrian, tutoreari eskaeraren zergatia adieraziko dio.
- Aholkulari eta orientatzaileak arreta-orduak definituak ditu.
- Ikasleak ordu horietan Orientazio Departamentuko bulegora joan ahal izango dira, horretarako mezu elektronikoko baten bitartez, aholkulari edo orientatzailearekin elkartzeko hitzordu bat ezarrita (noiz, non,...).

5. GARRAIO ZERBITZUA

Garraio Zerbitzuko arduraduna **Ainara Cuesta** da.

Autobuseko arduradunaren eginkizuna da ikasle guztiak autobusean jasotzea eta beren geltokietan uztea. Edozein argibide nahi izanez gero, harekin harremanetan jarri behar da. Horretarako idazkaritzara deitu eta abisua utzi behar duzue, eta ondoren bera jarriko da zuekin harremanetan. Mezu zuzenak emateko honako zenbakira honetara ere dei dezakezue: **688 803049 (Ainara)**

5.1 Autobusen ordutegiak

Garraioa Haur Hezkuntzan					
GOIZA			EGUERDIA		
09:00	ARRAGUA GOIA	08:32	12:00	IKASTOLA	
	ARRAGUA BEHEA	08:34		ARRAGUA GOIA	12:13
	LARTZABAL	08:37		ARRAGUA BEHEA	12:14
	FANDERIA	08:39		LARTZABAL	12:18
	UGALDETXO Intxixu	08:40		FANDERIA	12:20
	IBARRE / ITURRIOTZ	08:41		UGALDETXO Intxixu	12:22
	KARRIKA	08:43		IBARRE / ITURRIOTZ	12:24
	ALTZIBAR Kaleberria	08:47		ALTZIBAR	12:28
	IKASTOLA	08:55			
ARRATSALDEA			ARRATSALDEA		
14:30	ARRAGUA GOIA	14:05	16:30	IKASTOLA	16:35
	ARRAGUA BEHEA	14:08		ARRAGUA GOIA	16:41
	LARTZABAL	14:10		ARRAGUA BEHEA	16:44
	FANDERIA	14:12		GABIERROTA	16:45
	UGALDETXO Intxixu	14:14		LARTZABAL	16:47
	IBARRE / ITURRIOTZ	14:15		FANDERIA	16:50
	ALTZIBAR	14:18		UGALDETXO Intxixu	16:53
				IBARRE / ITURRIOTZ	16:55
				ALTZIBAR	16:56
				KARRIKA	16:58
		ALTZIBAR Klarene	17:00		
	IKASTOLA	14:25			

Garraioa Lehen Hezkuntzan

GOIZA			EGUERDIA		
08:30	ARRAGUA GOIA	07:56	12:00	IKASTOLA	
	ARRAGUA BEHEA	07:59			
	LARTZABAL	08:00		ARRAGUA GOIA	12:13
	FANDERIA	08:01		ARRAGUA BEHEA	12:14
	UGALDETXO Intxixu	08:03		LARTZABAL	12:18
	IBARRE / ITURRIOTZ	08:05		FANDERIA	12:20
	ALTZIBAR Agerrealde	08:07		UGALDETXO Intxixu	12:22
	ALTZIBAR Olalde	08:08		IBARRE / ITURRIOTZ	12:24
	ALTZIBAR Kaleberria	08:10		ALTZIBAR	12:28
	ERGOIEN	08:14			
IKASTOLA	08:25				
ARRATSALDEA			ARRATSALDEA		
14:30	ARRAGUA GOIA	14:05	16:30	IKASTOLA	16:35
	ARRAGUA BEHEA	14:08		ARRAGUA GOIA	16:41
	LARTZABAL	14:10		ARRAGUA BEHEA	16:44
	FANDERIA	14:12		GABIERROTA	16:45
	UGALDETXO Intxixu	14:14		LARTZABAL	16:47
	IBARRE / ITURRIOTZ	14:15		FANDERIA	16:50
	ALTZIBAR	14:18		UGALDETXO Intxixu	16:53
				IBARRE / ITURRIOTZ	16:55
	IKASTOLA	14:25		ALTZIBAR	16:56
				KARRIKA	16:58
				ALTZIBAR Klarene	17:00

Garraioa Bigarren Hezkuntzan Xorrolarekin

DBHko autobus erabiltzaileek, Xorrola erabiliko dute. Nola?

- Goizeko etorrera Xorrolaren bidez izango da, 07:40an Arraguatik ateratzen da.
- Eguerdian Xorrolan joango dira ikasleak.

5.2. Garraio zerbitzuko oinarrizko arauak

- Garraio zerbitzua Ikasleek soilik erabil dezakete.
- Ikaslearen geltokia izen-emate orrian adierazitakoa izango da. Egin nahi den edozein aldaketa idatziz adierazi behar du gurasoak; idazkaritzan daude ereduak.
- Garraioa ikastolako zerbitzua izanik, ikastolako arauak beteko ditugu:
 - Autobusean ere EUSKARAZ hitz egingo dugu.
 - ERRESPETU OSOZ tratatu behar ditugu: autobuseko arduraduna, gidaria, kideak, eta nola ez, autobusa bera ere bai.
 - Gure lekuan eserita egongo gara bidaia osoan (arduradunak esandako lekuan).
 - Segurtasun uhala erabiliko dugu beti, eta ikaslearen ardura ere izango da bidai guztian lotuta eramatea.
 - Autobusean ezin dugu ezer jan eta ezer leihotik bota, eta ez dugu sakelakorik erabiliko.

5.3. Bajak eskolaz kanpoko ekintzak dituzten egunetan

16:30eko zerbitzuan

5.3.1. Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzen kasuan: Ikastolan ulertzen dugu ikaslea ez dela egun horietan 16:30eko autobusean joango. Hala izanik, haur hori falta bada autobusa ez da zain egoten. Baina gerta daiteke egunen batean haurrak etxera joan behar izatea, nahiz eta eskolaz kanpoko ekintza izan egun horretan. Kasu horretan, idazkaritzan adierazi behar da edo garraio arduradunari abisua pasatuko zaio ondorengo telefono zenbakira deituz edo mezu bat bidaliz (WhatsApp bidez adibidez): **688 803049 (Ainara)**.

5.3.2. Ikastolak antolatzen ez dituen eskolaz kanpoko ekintzen

kasuan:

Ikastolan ez dakigu haur bakoitzak noiz duen ekintza hori. Beraz, ulertzen dugu egunero haurrak zerbitzua erabiliko duela. Hala izanik, aurreko kasuan bezalaxe, haur hori falta bada, autobusa zain egongo da eta haurra lokalizatzeko abisua emango dugu idazkaritzan. Egoera bideratzeko jarraitu beharreko prozedura aurreko puntukoaren berdina da.

- GURASOEK IDATZIZ adieraziko dute haurrak ZEIN EGUNETAN EZ DUEN garraioa arratsaldean erabiliko.
- Egun horietakoren batean zerbitzua erabiliko badu, idazkaritzan adierazi behar du edo garraio arduradunari abisua pasatuko zaio ondorengo telefono zenbakira deituz edo mezu bat bidaliz (WhatsApp bidez adibidez): **688 803049 (Ainara)**.

5.4. Baja puntualak beste arrazoiren batengatik.

5.4.1. Egunen batean haurrak ez badu etxera joateko garraioa erabiliko, BETI abisatu behar da:

- Idazkaritzara deituz (10:00ak baino lehen goizean eta 15:30 baino lehen arratsaldean
- Edo WhatsApppe mezua bidaliz: **688 803049 (Ainara)**

5.4.2. Abisurik eman ez eta gurasoa ikastolara haurraren bila etortzen bada, AUTOBUS GELTOKIAN JASOKO DU HAURRA, ETA ARDURADUNARI JAKINARAZIKO DIO GURASOAK. Prozedura horiek betetzea eskatzen dizuegu. Modu horretara kudeaketa ona lortzeaz gain, haurren segurtasuna bermatuko dugu.

5.5. Oinbusa

Ikastolara lagun artean oinez etortzeko ekimena berreskuratu nahi dugu Udalaren laguntzaz. Dagoeneko, OINBUSA egitasmoa martxan da eta Ugaldetxo, Iturriotz eta Altzibartik oinez etortzeko seinaleak jarrita daude Alexiako "Galeriak" atalean duzue Oinbusaren antolaketari dagokion dokumentua. Denon arduratik etorriko da ekimen honen arrakasta, eta mugikortasun iraunkorra.

5.6. Bizikletaz ikastolara

- Ekimen hau **LH eta DBHko ikasleei irekia** dago.
- Bizikleta gordailua prestatua dago, jantokiaren ondoan.
- Atea 07:30ean ireki eta 09:30ean itxiko da, 12:00etan ireki eta 15:30ean itxi (garai honetan bizikleta gordailua zaindua egongo da), eta 16:15ean ireki eta 16:45ean itxi.
- Eskolaz kanpoko ekintzen bukaeran ere gordailuko atea irekiko du ekintzaren monitorea.
- Erabiltzaileek bizikleta giltzarrapoarekin giltzatuta utzi behar dute eta kaskoa gelara eramango dute.
- Ikastola ez da bertan uzten diren bizikleten erantzule egiten, ez eta gordailutik kanpo uzten diren bizikletez ere.

Ikastolako ordutegiaren barruan, eguerdikoa eta ekintza osagarrietakoa barne, **ezin izango da bizikleta gainean ikastolako eremuan ibili**. Garai horretan bizikletaz etortzen denak, ikastolako eremu barruan bizikleta eskuan hartuta eramango du gordailura, eta irten ere modu horretan irtengo da.

5.7. Patinetez ikastolara

Ikastolako ordutegiaren barruan, eguerdikoa eta ekintza osagarrietakoa barne, ezin izango da patinete gainean ibili ikastolako eremuan. Garai horretan patinetez etortzen denak, ikastolako eremu barruan patinetea eskuan hartuta eramango du gelara, eta irten ere modu horretan irtengo da. Erabiltzaileek patinetea giltzarrapoarekin giltzatuta utzi behar dute bizikleta gordailuan, eta kaskoa gelara eramango dute.

6. JANTOKI ZERBITZUA

Jantokiko arduradun orokorra **Maritxu Loperena da**. Horrez gain, maila bakoitzak eta, handiagoen kasuan, ziklo bakoitzak arduradun finko bat du.

Gurasoek edozein zalantza izanez gero, haurraren arduradunarekin ere zuzenean harremanetan jartzeko aukera izango duzue. Honetarako ikastolako idazkaritzara deitu eta abisua utzi behar duzue. Ondoren arduraduna zuekin harremanetan jarriko da.

Idazkaritza 13:00etatik 14:30era bitartean itxita dagoenez, **larrialdiren bat suertatuz gero** bakarrik deitu zerbaki honetara:

692 730 199 (Maritxu)

6.1. Altak eta bajak

- Jantokiko zerbitzua erabili ahal izango dute aurrez izena emandako ikasleek.
- Izena ematea ikasturte osorako edo egun solteetan ere egin daiteke.
- Izen-ematea, edo alta, IKASTURTERO egin behar da. Ekainean egiten da edo beharra sortzen den unean ere egin daiteke.
- Jantokiko abisuak idazkaritzan hartuko dira goizeko 10:00ak arte, beranduago jasotakoak ez dira deskontatuko.

• **Telefonoz** 943 491 659.

• **WhatsApp bidez:** Jantokiko eguneko altak eta bajak modu eraginkorragoan kudeatu ahal izateko, WhatsApp zenbakia jarri dugu martxan: **656 912 315**. Zerbaki hau, **JANTOKIKO ESKAERAK BAKARRIK** kudeatzeko da eta orain arteko baldintzak bete behar dira ordutegiari dagokionez.

WhatsApp mezuan, derrigorrez adierazi beharreko datuak ondorengoak dira:

- Ikaslearen izena eta 2 abizenak
- Maila
- Aldaketaren data zehatza
- Alta ala baja den

• **Posta elektronikoz:** idazkaritza@hartzaro.ikastola.eus

- **Abisuak aurreko egunetan ere eman daitezke, ez dago derrigorrez egunean bertan eman beharrik.**
- **Egun berezietako abisuetarako prozedura zein izango den buletinaren bitartez jakinaraziko dugu.**
- Ikaslea egunen batean ez bada etorriko, BETI ABISATU behar da; kontuan izan ikastolaren ardurapean dagoela haurra garai horretan eta arduraduna haurra ezin aurkiturik ibil daitekeela.
- Bestalde, 10:00ak baino lehen abisua pasatuz gero, egun horretako kostua deskontatu egingo da.

6.2. Menuak

- Elikadura orekatu bat sustatzeko irizpideak jarraituz antolatzen dira.
- Alexiako "Galeriak" atalean izango dituzue eskura.
- Haurren batek egunen batean "dieta astringentea" behar badu, goizeko 10:00ak baino lehen gurasoek idazkaritzara deituz eska dezakete sukaldariak prestatu dezan.
- Gaixotasunengatik (alergiak) menu bereziak. 13. Puntuak jasoa dagoen prozedura jarraitu behar da.

Menuan berrikuntzak poliki-poliki sartzen dira, beti ikasleen harrera kontuan izanik.

6.3. Autonomia, osasun eta elikadura ohiturak

- Bazkaldu aurretik garbitu behar dira; HH eta LHn arduradunaren ardurapean egingo da, DBHn berriz, ikaslearen esku gelditzen da hau egitea.
- Ikasleari jateko tresnak modu egokian erabiltzea eskatuko zaio; Haur Hezkuntzan helduaren laguntzarekin egingo da, bere kabuz erabiltzeko gai diren arte.
- Janari bakoitzetik gutxieneko bat probatzea eskatzen da; HHn eta jantokira hasi berriak diren ikasleekin malgutasunez jokatzeko da.
- Janaria mahai gainera eta lurrera bota gabe jan behar da.
- Bazkaldu ondoren hortzak garbitzea ez da derrigorrezkoa izango ikasle guztientzat; gurasoen esku egongo da erabakia. Beraz, **zuen seme-alabak eguerdian bazkaldu ondoren hortzak garbitzea nahi baduzue, ondorengoia egin behar duzue:**
 - a. **Horretarako prestatutako inprimakia (on line) bete**, webgunean dago.
 - b. **Hortzak garbitzeko tresnak ekarri:** hortz-eskuila eta pasta

Oharra: HH eta LHko haurrek, eguerdietako eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen badute eta saioak 13:30 baino lehen hasten badira, ez dituzte egun horietan hortzak garbituko.

Etapa bakoitzean:

Haur Hezkuntzan:

- Jantokiko begiraleak arduratuko dira haurrei laguntzeaz.
- Hortz-eskuilak jantokian jasoko ditugu.

Lehen Hezkuntzan:

- Jantokiko begiraleak arduratuko bada ere haurrei laguntzeaz, haurren esku gelditzen da tresnen erabilera.
- Hortz-eskuila nezeser txiki batean gordeko dira; haurrak bere tresnak antolatzen hasten dira, edo antolatzen ditu. Tresnak nezeserretan gordeko dira.

Horregatik:

- LHkoak garbitzeko tresnak nezeser txiki batean ekarri behar dituzte, ondoren hor gordetzeko.
- Opor garai bakoitzeko, aurreko eskola egunean etxera eramango dituzte nezeserra eta eskuila. Oporren ondoren ekarri beharko dituzte berriro.

Bigarren Hezkuntzan:

- **Ikaslearen esku dago hortzak garbitzea.**

- Hortz-eskuila nezeser batean gordeko dute ikasleek. Beraz, bakoitzak bere tresnak ekarriko ditu eta bera arduratuko da tresnen garbitasunaz.

6.4. Jantokiko araudia

Jantokia ikastolako zerbitzua izanik, ikastolako arauak beteko ditugu:

- Jantokiko langileak arduratuko dira ordenaz eta funtzionamendu egokiaz. Beraz, guztiok ERRESPETATU behar ditugu, eta eurek hartutako erabakiak onartu.
- Bazkalorduan eserita egongo gara, lekuz aldatu eta istilurik sortu gabe.
- Arazoren bat dugunean, bertako arduradunarengana joko dugu arazoa konpontzeko.
- Ikasleen eskubideen eta betebeharren araudian jasoa dagoen modura, ikasleek ezingo dute garai horretan (12:00-14:30 edo 14:15-15:15) ikastolako eremutik atera, beti ere gurasoek baimenduta ez bada. Baimen hori idatziz adierazi behar da; **beti** ikaslea atera aurretik (14. artikulua, 3. puntua). Eredua webgunean eta idazkaritzan jaso dezakezue. Ikaslearen jokabidea desegokia bada, baimen hori zuzendariak kendu ahal izango du.
- Ikasleak irteteko baimenik ez duen kasuan, gurasoa ez den beste norbait ikaslearen bila etorriko balitz, aurrez abisatu behar da arduradunak jakin dezan; idazkaritzara deitu horren berri emateko, edo begiraleari ahoz adieraztea ere nahikoa izango da.
- **Etiketrik ekartzen diren jostailuak:**
 - Haur Hezkuntzako ikasleek etiketik ekartzen dituzten jostailuak gelan utziko dira; kasu bereziren batean jantokira eramanez gero, apal batean jasoko da ikastolara itzuli bitartean; jantokian bertako jostailuekin jolastuko dugu.
 - Lehen Hezkuntzan: baloiak gelan utziko dira. Beste jostailuak (txapak, zibotak...) jangelara eraman daitezke bazkal ondoren jolasteko, baina horien zaintzaren ardura ikaslearena izango da.

6.5. Gurasoei informazio idatzia:

Jantokiko ikasleen gurasoek jantokiko informazioarekin informe idatzia jasoko dute:

- Haur Hezkuntza:
 - Egokitzapen garaian astean behin.
 - Ondoren, hilabete bukaeran.
- Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan: hiruhilekoaren bukaeran, eskola txostenarekin batera.

7. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Koordinatzaile orokorra ALAITZ BERGARETXE da.

Eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko eta funtzionamendurako argibideak Alexian, "Galeriak"-en dagoen ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN txostenean daude.

Koordinatzailearekin harremanetan jartzeko:

1. Zuzenean: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara, eta asteazkenetan 15:00etatik 16:00etara. Ikastolara dei dezakezue edo bertara etorri.
2. estraeskolarrak@haurtzaro.ikastola.eus helbidera bidal dezakezue zuen oharra.

Aurtengo eskaintza ondorengo tauletan adierazten da:

Haur Hezkuntzan (HH)

JARDUERA	MAILAK
Musika tailerra	HH 4 (4 urte) eta HH 5 (5 urte)
Panderoa	HH 5 (5 urte)
Psikomotrizitatea	HH 4 (4 urte) eta HH 5 (5 urte)
Sorgin eta Aztien Heltzea	HH 4 (4 urte) eta HH 5 (5 urte)

Lehen Hezkuntzan (LH)

JARDUERA	MAILAK
Abesbatza	LH 1-LH 6
Antzerkia	LH 2-LH 6
Atletismoa	LH 3-LH 6
Bertsolaritza	LH 5-LH 6
Dantza garaikidea	LH 1-LH 6
Dantza txapelketak	LH 3-LH 6
Eskola Kirola	LH 3-LH 6
Eskulanak	LH 1-LH 6
Euskal dantzak	LH 1-LH 6
Gitarra	LH 2-LH 6
Mekanografia	LH 3-LH 6
Panderoa	LH 1-LH 6
Robotika	LH 3-LH 6
Sorgin eta Aztien Heltzea	LH 1
Trikitia	LH 1-LH 6
Xakea	LH 1-LH 6

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH)

DBH 1 - DBH 4

Abesbatza	Gitarra
Atletismoa	Panderoa
Bertsolaritza	Robotika
Dantza garaikidea	Trikitia
Dantza txapelketak	Kirola, osasuna eta elikadura
Euskal dantzak	Komikigintza

- Hilean behingo maiztasuna duen ekintza: Ikastolako Mendi Taldea.

8. ZAINTZA ZERBITZUA

8.1. Goizeko zaintza gela:

- Ordutegia: 07:30etatik 09:00etara izango da.
- Beranduenez 08:45etan sartu ahal izango da zaintza gelan.
- Gurasoak gelan sartu ahal izango dute hasierako egunetan soilik, haurra egokitu bitartean; urritik aurrera ez dira gurasoak zaintza gelan sartuko.
- 3 urteko haurren kasuan, egokitzapen garaian, ahal bada, zerbitzua ez erabiltzea aholkatzen dizuegu gurasoei. Kasu honetan, iraila bukaeran hasiko direnez zerbitzua erabiltzen, gurasoak urriaren bukaera arte sartu ahal izango dira zaintza gelan.
- HH eta LHko ikasleei irekia dago.
- Ez da izenik eman behar erabili aurretik, irekia da.
- Doako zerbitzua da.
- Arduradunak: Eskarne Darzeles eta Izar Lekuona dira.

8.2. Liburu Txokoa erabiltzeko aukera:

Ikastolara sartzeko eta ateratzeko ordu ezberdinak dituzten haurren gurasoek, sarrera-orduaren zain zuen autoan edo pasilloan egon beharrean, Liburu Txokoa erabiltzeko aukera duzue.

- Ordutegia: 08:00-09:00 eta 16:30-17:30.
- Gurasoak izango dira leku horren erabilera egokiaren arduradunak.

9. IKASLEAREN BERTARATZE FALTA EDO HUTS EGITEA

Ikasleen eskubideen eta betebeharren araudian jasota dago ikasleek kalitatezko hezkuntza integrala izateko duten eskubidea (I. kapitulua, I. atala, 6. artikulua). Hori horrela izanik, gurasoek ikasleen bertaratze falta edo hutssegitea justifikatu egin behar duzue.

Nola?

- Haur Hezkuntzan: irakasleari ahoz adierazita (telefonoz edo aurrez aurre), edo mezu elektronikoz bidez.
- Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan: irakasleari ahoz adierazita (telefonoz edo aurrez aurre), mezu elektronikoz bidez edo ikasleak huts egiteak adierazteko orria (talonarioa) beteta ekarriz.
- Justifikatu ez diren huts egiteak **justifikatu gabeak** izango dira.

Noiz?

- Huts egitea aurreikus daitekeen kasuetan (medikuarekin hitzordua...), aurrez justifikatzea komeni da.
- Huts egitea aurreikusi ezin denean (gaixotasuna...) egunean bertan telefonoz edo mezu elektronikoz abisatzea komeni da. Ez bada horrela egiten, ikaslea ikastolara etortzen den egunean idatziz jakinaraztea komeni da.
- Beranduenez 3 eguneko epean justifikatu behar da.

Hezkuntza Sailak horrela araututa, tutoreak huts egiteen erregistroa egingo du etapa guztietan. Hilabete bakoitzaren bukaeran zuzendariak ikasleen bertaratzearen berri eman behar du Hezkuntza Ikuskaritzan.

10. IKASLEEN ESKUBIDEEN ETA BETE BEHARREN ARAUTEGIA

Haurtzaro Ikastolako ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia EAEko unibertsitatez kanpoko ikasleen eskubideei eta betebeharrei dagokien abenduaren 2ko 201/2008 aginduan (EHAAn 2008ko abenduaren 16an argitaratua) eta Haurtzaro Ikastolako Hezkuntza Proiektuan oinarritzen da. Ikastolako webgunean eguneratua egongo da. Paperean nahi duenak idazkaritzan eskuratu ahal izango du.

11. IKASLEEN SAKELAKO TELEFONOAK IKASTOLAN: erabilera araudia

Ikastolako lanetarako eta komunikaziorako ikasleek ez dute behar telefono edo gailu mugikorrik, beraz tresna hori ikastolan erabiltzea (piztua edukitzea) debekatua dago.

Ikasleren batek telefono edo gailu mugikorra ikastolara ekarriko balu ondorengo prozedura jarraituko da:

- Jantokian ezin da sakelakorik erabili.
- Ikaslea izango da bere sakelakoaren erantzulea. Edozein intzidentzia gertatuz gero, ikastola ez da erantzule izango.
- Gogoratu ikastolako ordutegian (eskolaz kanpoko ekintzak barne) eta ikastolako eremuan sakelakoa itzalita eduki behar dela.
- DBHko ikasleak 08:00etan bere takilan sartuko du eta 14:15ean hartuko du.
- LHko ikasleren batek ikastolara ekarri behar badu, seguru gordea egon dadin irakasleari eman diezaioke 08:30ean eta etxera joaterakoan eskatuko dio.
- Gelako lanetarako sakelakoa ekarri behar denean, ikasleak agendan mezu bat eramango du eta irakasleak ikaslearen mailako Calendar-en ere adieraziko du horren berri (DBHn).
- Telefono edo gailu mugikorraren erabilera desegokia egiten denean (arau horiek betetzen ez direnean), irakasleak ikaslearen telefonoa hartuko du, ikasleari eskatuko dio, eta tutorearen esku jarriko du. Gailu hori gurasoari eskura itzuliko zaio.

Ohar garrantzitsua: EZINBESTEKOA da gailu horietaz ikasleek egiten duten ERABILERAREN JARRAIPENA GURASOEK egitea, ikasleak adin txikikoak direnez, eta gailu horiek ikasleen esku gurasoek jartzen dituztenez, GURASOAK baitira erabilera horren ERANTZULE, eta EZ IKASTOLA.

12. IKASTOLARA SARRERA ORDUA BAINO LEHEN ETORTZEN DIREN IKASLEAK

Goizean edo arratsaldean ikastolara sarrera ordua baino lehenago etortzen diren ikasleen kasuan ondoren adierazten den moduan jokatu da:

1. Goizean:

- a. Goizeko zaintza zerbitzua: ikastolan zaintza zerbitzua badagoenez, bertara joan beharko luke ikasleak.
- b. Pasilloetan gelditzen diren ikasleak: batzuetan ikasleek pasilloetan gelditzea erabakitzen dute. Kasu horietan bertan egoten utziko zaie, beti ere beren jokabidea egokia den bitartean. Jokabide desegokirik gertatuko balitz, zuzendaria gurasoekin/gurasoarekin harremanetan jarriko da.

2. Arratsaldean:

- a. Jantokiko zerbitzu garaian: arratsaldean ikasleak ikastola ordua baino lehenago etortzen direnean, jantokiko ikasleekin batera ikastolako eremu ezberdinak erabiltzen dituzte. Ikasle horien jokabidea egokia den bitartean, ez dago arazorik horretarako, baina jantokikoak ez diren ikasle horiekiko erantzukizunik ez dute begiraleek. Jokabide desegokia den kasuetan zuzendaria gurasoekin edo gurasoarekin harremanetan jarriko da.
- b. Pasilloetan gelditzen diren ikasleak: arratsaldeetan ere ikasle batzuk pasilloetan gelditzea erabakitzen dute. Kasu horietan bertan egotea utziko zaie, beti ere beren jokabidea egokia den bitartean. Jokabide desegokirik gertatuko balitz zuzendaria gurasoekin edo gurasoarekin harremanetan jarriko da.

Ikaslea ikastolako eremuaren barruan dagoen momentutik gertatzen denaren arduraduna ikastola delako hartu du erabaki hau Hezkuntza Batzordeak (2011-04-24). Ikastolako bizikidetzak ahalik eta osasuntsuena izan dadin, gurasoei ere gai honetaz etxean hitz egitea eskatzen zaizue, funtzionamendu onerako beharrezkoa baita guztion konpromisoa.

13. OSASUNAREKIN ERLAZIONATUTAKO GAIEN TRATAERA HAURTZARO IKASTOLAN

13.1. OSASUN ARRETA BEREZIA IKASTOLAN (gaixotasunak, alergiak...)

Denon ardura da ikastolan gaixotasun arriskuak ahalik eta gehien saihestea. Horretarako, beharrezkoa izango da neurri hauei arreta berezia jartzea:

1. Denboraldi luzekoak diren kasuetan

Haurrak osasun arazo bat badu, gurasoek/tutoreak ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio dagokion mediku ziurtagiriak aurkeztuz. Ziurtagiriak honako hauek jaso beharko ditu: osasun arazoa zein den eta eskola orduetan eman behar zaion arreta (modalitatea, jarduerak, eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak). Idazkaritzan eskura dezakezue eredia.

2. Denboraldi mugatukoa, laburra, den kasuetan

Ikasle batek eskola garaian denboraldi labur batean **arreta berezia behar badu**, hau da, osasun egoerarengatik arreta berezia edo botikarik eman behar badio irakasleak:

- Gurasoak honen berri emango dio irakasle tutoreari IDATZIZ, idatzizko mediku agiriarekin batera.
- Garai honetan haurrari arreta berezia eskaintzeko bere aginpide edo autoritatea ordezkotzan emango dio, hau ere idatziz. Garbi adieraziko da bertan zeregin hori betetzeari dagokionez erantzukizun guztietatik kanpo gelditzen dela irakaslea.

- Medikazio bat eman behar denean, kasu honetan aurrekoan aipatutakoaz gain, gurasoaren idatzian garbi adieraziko da eman beharreko dosia eta maiztasuna.

Idazkaritzan eta webgunean eskura dezakezue ereduak.

3. Ikaslea Ikastolan gaixorik edo ondo ezik jartzen den kasuan

HHn eta LHn, gurasoen agindurik gabe, ez zaio ikasleari botikarik emango. Ikastolan bertan ondoeza suertatuz gero, botikarik eman daitekeen ala ez gurasoei kontsultatuko zaie telefonoz, egoera sortzen den momentuan. Botika emango zaio, beti ere, aurrez gurasoek idatziz botika ematea baimendu badute. Horretarako, **gurasoei ikasturte hasiera bakoitzean medikazioa emateko baimena emateko orria betetzea eta sinatzea eskatuko zaie.**

DBHko IKASLEEN kasuan, gurasoei ikasturte hasiera bakoitzean medikazioa emateko baimena emateko orria betetzea eskatuko zaie. Baimena ematen den kasuetan, Ikasle batek ondoezik aurkitzen delako botikarik eskatuko balu, irakasleak eman egingo dio eta erregistro orri batean honen berri jasoko du. Gurasoek baimenik ematen ez duten kasuan, ikasleari ez zaio medikaziorik emango.

4. Haurrak sukarra, gaixotasun kutsakor bat edo beste gaixotasunen

bat badu, ezingo da ikastolara etorri. Kontuan izan hori erabat desatsegina dela ikaslearentzat, eta are gehiago, adin txikiko ikasle hauentzat. Zuen haurra gaixotzen denean, irakasle-tutorea jakinaren gainean jarri behar duzue.

13.2. ZORRIEN GAIA

Zorrien gaiarekin ondoren adierazten den moduan jokatu da Haurtzaro Ikastolan:

1. Gurasoei dagokie, osasun eta higiene ohitura modura, astero edo maiztasun jakin batekin haurren buruak begiratzea.
2. Irakasleak bere gelako haur bat buruan hazkura egiten ikusten badu, eta zorriak

izan ditzakeen susmoa badu: haur horren gurasoari zorriak eduki ditzakeela adieraziko dio, hitzez edo idatziz.

3. Gurasoen ardura izango da, ahalik eta epe laburrenean, beren seme-alabari zorriak kentzea.

URREZKO ARAUA

Tratamendu kimiko bat jarri aurretik, egiaztatu egin behar dugu infekzioa dagoela, zorriak bizirik, mugitzen, ikusita. Etxekoren baten buruan zorriak aurkitu badira, etxeko guztiak aztertzea komeni da, eta, zorriak dituela egiaztatuz gero, tratamendua jartzea, dauzkaten haiei.

Ez erabili sekula zorrien aurkako loziorik, tratamenduak "badaezpada" egiteko.

Jarraibide horiek Gipuzkoako hainbat profesionalen artean egindako gidan jasoak daude: BURUKO ZORRIEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA URREZKO ARAU BAT. Irakasleak eta osasun-profesionalak (farmazialariak, erizainak eta medikuak) eta Epidemiologia Unitateko teknikariak elkartu dira horretarako. Nahi izanez gero, GIDA idazkaritzan eska dezakezue edo ikastolako webgunean topatu.

13.3. ISTRIPUAK

Istripuren bat gertatzen denean, pauso hauek jarraitu ohi ditugu:

1. Ikasleren bat ikastolan bertan zauritzen bada, bertan egiten dizkiogu lehenengo sendaketak. Behar izanez gero, herriko anbulatoriora jotzen dugu, pediatrarengana edo sendagilearengana, hain zuzen. Ondoren, ikaslearen gurasoak jakinaren gainean jartzen ditugu.
2. Pediatrak edo sendagileak hala eskatzen badu, Donostiako Arantzazu Ospitaleko larrialdietara eramaten dugu ikaslea. Kasu horretan, tutoreak edota ikaslea eramán duen pertsonak gurasoei deituko die, gertatutakoaren berri emateko.

14. DATUEN EGUNERATZEA

14.1. Datu pertsonalak

Datu pertsonalen batean aldaketaren bat badago (helbidea, telefono zenbakia, abizen-eguneratzea...), idazkaritzan adierazi behar da.

14.2. Familia-egoera aldaketak

Familia-egoera berriei (banaketak, kustodiak, tutoretzak...) trataera egokia eman ahal izateko, zuzendaritzan adierazi behar dira aldaketak.

14.3 BABESGABETASUN AZTARNAK DAUDEN EGOERAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Ikastetxe honek gurasoei honako hau jakinarazten die: Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005), ikastetxean uste bada ikasleen babesgabetasun egoeraren aztarnak daudela, hau da, zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, zentroak horren berri eman beharko die derrigorrean gizarte zerbitzuei. Hala egiten denean, eragindako ikaslearen familiari jakinaraziko zaio.

15. HIZKUNTZAREN TRATAERA IKASTOLAN

Hurtzaro Ikastola izaera euskalduna duen entitatea da. Horregatik, euskararen eta euskal kulturaren transmisioarekin, garapenarekin eta normalizazioarekin guztiz konprometitzen da. Era berean, eta aniztasunaren izenean, beste hizkuntzen eta kulturen ezagutza ere bultzatzen du.

Euskararekiko sentsibilizazioa suspertzea eta eguneroko ekintzetan ikastolako komunitateko kideen arteko harremanak euskaraz bideratzea, garrantzizko erronka da Haurtzaro Ikastolarentzat.

Guraso bilerak komunikazio ekintzen artean daudenez, azken urteetan aldaketak egin dira taldekatzeko moduan eta hizkuntzaren trataeran.

LH eta DBHko guraso bileretan prozedura berri bat jarri da martxan: hizkuntza eredu desberdineko gurasoak bilera bakar batera gonbidatuko dira eta bertan erabiliko den hizkuntza euskara izango da. Dena dela, bileretako helburu nagusia sozializazio-komunikazioa dela ahaztu gabe, partaide guztiak edozein hizkuntzatan era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute.

HHko guraso bilerak, berriz, modu honetan antolatzen dira: 16:40ean bilera euskaraz, eta 18:00etan bilera gaztelaniaz.

LHko 1. maila zubi modukoa denez, irailean bi bilera egingo dira eta ikasturte bukaerako bileran prozedura berria jarriko da martxan.

16. HAURTZARO IKASTOLAKO INFORMAZIOA

16.1. Buletina

Buletina Haurtzaro Ikastolako barne komunikaziorako dokumentua da, bertan asteko informazioa agertuko da.

- Buletin **bakoitzak zenbaki bat** du.
- **Zein datarekin atera den** adierazten da.
- **Ostiraletan** banatzen da (jai den kasuan aurreko egunean).
- **Alexia** bidez jasotzen da

16.2. Alexiako jakinarazpenak

Buletinetik kanpo geratzen diren oharrak eta jakinarazpenak Alexiaren bidez bidaliko dira eta dagokion etapako, zikloko ala mailako gurasoei bakarrik iritsiko zaie.

16.3. Idazkaritzako helbide elektronikoa

Ikastolako partaideon arteko komunikazioa errazteko, idazkaritzan helbide elektronikozuzena dugu:

idadzkaritza@hartzaro.ikastola.eus

Kontu honetan jasoko dira jantokiko eta garraioko mezuak, baina idazkaritzarako den beste edozein ere. Mezuek argiak eta zehatzak izan behar dute.

16.4. Ikasturteko agenda webgunean

Hartzaro Ikastolako webguneko agendan aurkituko duzue ikastolako bilera eta ekitaldi guztien egutegia.

16.5. Ikastolan erabiltzen diren inprimakiak

Eskaera ezberdinak egiteko erabiltzen diren ikastolako inprimakiak idazkaritzan eska ditzakezue edo eta web orrian aurkituko dituzue "**Dokumentazioa/Gurasoen dokumentazioa**" atalean.

16.6. Tutoreekin eta zuzendaritzarekin mezu elektronikobidez komunikatzeko aukera

Gurasoek zuen seme-alabaren tutorearekin eta zuzendaritzarekin mezu elektronikobidez komunikatzeko aukera duzue.

Zuzendaritzako kideen eta tutore bakoitzaren helbide elektronikoa ikastolako webgunean aurkituko duzue "**Ikasturtea**" atalean.

Jakin ezazue mezu bat bidali ondoren agian arratsaldea edo hurrengo goiza arte ez duela irakasleak irakurriko eta 24 orduko epean agian ez duzuela erantzunik jasoko, epe hori beharrezkoa baitugu gure antolaketarengatik.

17. IKASLEEK IKASTOLAN GALTZEN DITUZTEN ARROPA ETA BESTELAKOAK

Ikasleek tarteka beren arropa edo bestelakoak (karpeta...) galtzen dituzte.

Arroparen kasuan sarrera nagusian dagoen pertxeroan zintzilikatzen da. Galdu duenaren ardura izango da bertan begiratzea, eta galdutako arropa bertan egongo balitz, zuzenean har dezake.

Leku horretan arropa dezente pilatzen denez, oporraldi bakoitzean bertan pilatu den arropa jaso egingo da.

Aurkitu diren gainontzekoak idazkaritzan jasotzen dira; bertan galde dezakezue zerbait galdu duzuen kasuan.

18. KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

Haurtzaro Ikastolak iradokizunetarako eta kexetarako zehaztutako prozedurari jarraituz, zure seme/alabaren **tutorearekin, ikasketa buruarekin edo zuzendariarekin harremanetan** jarri beharko zenuke, dagokion gaiaren arabera.

Zure iradokizuna ala kexa webgunearen bidez bidaltzea erabakiko bazenu, eta nori zuzentzen zaion adieraziko ez bazenu, jakizu Zuzendaritzari igorriko zaiola, hark erabaki dezan nola bideratu.

19. FUNTZIONAMENDUKO OROKORREKO TXOSTENARI BURUZ OHAR GARRANTZITSUA

Funtzionamendu Orokorreko Txostena indarrean egongo da Haurtzaro Ikastolan hurrengo txostena argitaratu bitartean.